

Arratiako hainbat artistaren lanak ikusgai Igorreko Kultur Etxean

13. orrialdea

Ruth Linaza tiralaria Irlandako Munduko Sokatira Txapelketara

Ruth Linaza Irlandan izango da hilaren 20tik 23ra bitartean, Sokatirako Munduko Txapelketan. Lemoako tiralaria Gasteizko Badaiotz taldean dago, 2012an munduko txapelduna izan zana. Saiatuko dira Badaiotz-ekoak oraingoan be titulua Euskal Herrira ekarten. 10. orrialdea



Areatzako Esku Pelota Alkartekoak gogotsu aurrera begira

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

202

2014ko zezeilaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Mozorroak eta kalejirak Aratusteetan

Aratuste jai egunak zentzu zorrotzean hartu ezkerreko egun batzuk baino ez izan arren, zentzu zabalean ziklo bat osotuten dabela dinoe Igone Etxebarria, Adolfo Arejita eta Akaitze Kamiruaga Labayrukoak *Aratusteak Bizkaian zezeilaren 14an Bilbon aurkeztutako liburu eta DVDan.*

Ziklo honetan bete-betean sartuta, txitxi-burruntziak egingo dabez auzuneetako landetan eta eskoletan, bizi-bizirik dagoan tradizioa mantenduz. Taloa eta txorizoa ez dira faltauko lagunartean jateko. Aratuste egu-

netan, barriz, mozorroak jantzita ibiliko dira gazte eta ez hain gazteak. Erropa barregarriak jantzita hilaren 28an Areatzan hasi eta Bedian martiaren 4an amaituko dira kalejira, festa eta desfileak. 12. eta 13. orrialdeak



Igaz Igorreko taberna baten hartutako irudia.

Argazkia: Irati Urien.

ARRATIA

Udaletxeetan dagozan banderak aldatuten dabiz

Legeak derrigortuta, udaletxeetan Espainiako bandera ipini dabe eta horrek arazo batzuk ekarri ditu zenbait udaletxetan. Holan, Arantzazun bandera ipini eban arren, baten batek kendu eban eta Arantzazuko alkatea Begoña Llano epailearen aurrean agertu beharko da. Ubiden ikurrina ez ipintea bandera espainolaren ondoan ebatzi dabe eta Zeberion "Euskal presoak eta iheslariak etxera" banderatxoak udaletxetik kendu eta beste udal lokaletan ipiniko dabe. 5. orrialdea



LEMOA

Hileta zibilak egiteko udal lokalak

Hileta zibilak egiteko udal lokalak erabili ahal izango dabez lemoaztarak. Agurra edo omenalditxoa egiteko zeremonia duin bat egin ahal izatea gatxa izan da orain arte, erlijino barik bizi izan diranen familia eta lagunentzat. Hau erreteko Lemoako Udalak heriotzagaitik agurrak ospatzeko araudia onartu dau. Kiroldegian, udaletxeko Batzar Aretoan eta Arraibi eta Elizondo plazetan egin ahal izango dira zeremonia honeek. Ospakizunok ezingo dira egin gorpua bertan dala. 6. orrialdea

**ekin s.l.**
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOIAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 · Faxes: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARANTZAZU / ZEBERIO

Udal kontuak onartu dira

Urtailearen 28an Arantzazun eta 30ean Zeberion 2014ko aurrekontuak onartu ziran. Diru soberakina izan eban igaz Arantzazun eta diru hori azpiegituretako erabili gura dabe. Etxe kaleratze eta gizarte emergentzietarako diru partidea be badago dago Arantzazun.

Zeberion barriz, igazko urtea defizitaz garratu zan eta hori konpenseko modua egin dabe aurtengo kontuetan. Auzolana, gastuen kontrola eta eraginkortasun energetikoa sustatuko dabe Zeberion. 5. orrialdea



IGTIE

KARDUAREN GARBIKETEA

Erositako edo sasoian sasoikoagaz elikatu behar garala kontuan hartuz, sasoi honetan kardua topau daitegu gure ortuetan. Gaurkoan karduren garbiketean zelan egin azalduko dogu.

Kardutik burua baino ez dogu sukaldatzen. Oinaldetik bizpahiru arra gora, gogorak eta zailduak dagoz haren orri mamiak. Ez dau merezidu sukaldan prestatzea.

Ebagi bat egingo dogu karduren oin aldean, orri mamiak bereizteko. Gorde egingo dogu ebagitako zatia: zuritu ondoren, haren barruan agerian egoan karduren "mami", zatitutako orri mamiakaz ontzi baten sukaldatu

tuko doguna.


12-14 cm.ko puskatan zatituko doguz orri mamiak. Adar bakoetik bizpahiru zati aterako doguz, karduren neurriaren arabera. Laban zorrotz batez kenduko deutsagu alde izurtuan ageri dauan mintza, eta beste aldetik hariak.

Puskak ongi zuritu eta gero, bost cm.ko zatiak egingo doguz. Hasieran ebagi dogun zatia be zurituko dogu, eta bizpahiru zatitan moztu. Garbitu ahala erantsiko doguz puskak presino-eltzean irakiten eukiko dogun ur gazian, airean kutsaduraren podesuz ilundu ez daitezana. Azken zatiak eltzeratu ondoren egosiko doguz.

Ez deutsagu limoirik edo urunik erantsiko egoste aldeari, barazkiak

berezko zaporea galdu ez daian. Garbitu bezain laster eta gordinik

botako dogu kardua irakiten dagoan uretara ilundu ez daiten.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 24tik martiaren 2ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 3tik 9ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Baba



Lapikoan egosita asko estimetan dan jatekoa da baba-lapikoa. Baba-zuriak, baba-gorriak eta baba-baltzak jan izan dira betidanik etxe gehienetan. Arratian, indaba eta indababa berbak be erabilten dira (babéa, indábea, indábabea, agoskatuta). Batuaz, indaba edo babarrun esaten da. Baba-zabala bestalde, baba baino udabarriko baba handiagoari esaten jako. Lehenago gaur egun baino askoz gehiago jaten zan. Baba berbeak, anpulia edo urrutu baten ondorioz sortzean dan materiz beteriko garau modukoa be esan gura dau.

ERETXIA

Facebooken 10. urteurrena



IDOIA RUIZ SANCHEZ
Zuzenbidean Lizentziaduna

Ordenagailu eta internet munduaren zalea naz ni. Niretzako magia da aparatu txiker batez egin ahal diran gauzak. Etxean grabetan dozu bideo bat, sartzean dozu ordenagailuan eta ia profesionala emoten dauan pelikulea urteten da.

Baina internet apartekoa da. Etxetik, edozein lekutan dagoan lagun batez konektatu ahal zara, hain polita geratu dan pelikula hori igo edozeinek ikusteko, telebistan beste egun baten emon dabena ikusi, eta abar.

Hasieran, dana interesgarria iruditzen jatan eta gauza askotan sartzean nintzan: Yahoo, Google, bloggak, gura neban webgune bat egin... Eta azkenean, google-zalea bihurtu nintzan.

Google astiro-astiro hasi zan. Bere gmail-a gero eta hobea zan, baina posta elektronikoko zerbitzu bat baino ez zan. Gero atera eben Picasa programea. Ordenagailuko argazkiak antolatutako, editetako eta besteakaz konpartidutako zerbitzua emonaz. Ni gero eta interesatuago nengoan han agertzen ziran zerbitzuetan. Eta momentu horretan Google + agertu zan. Facebooken lehiakidea zala esan eban.

Momentu horretara arte ez neban interesik euki sare sozialetan, baina Googlen sartuta egoan sare sozial bat interesgarria izango zala pentsau neban.

Sare sozialen artean, Facebooka erregina da, eta mundu hori eza-gutu gura ezker, Facebooken sartu behar da. Horregaitik, nire profilean sartu nintzan. Oraindino ez jata gustetan neure buruaren gaineko datu askorik emotea, baina izen abizenak eta ikasketak sartu nebazan.

Holan topau neban unibersidadeko lagun bat. Orain Sevillan bizi da. Ezkondu eta banandu egin da eta berari buruzko gauza asko jakin nebazan. Aste baten egon ginan kontaktuan, baina gure bi-

zitzak oso desbardinak dira eta ez genkian zertaz berba egin.

Gero, alabea Irlandara joan zan. Ezin ginan kontaktuan jarri zuzenean, baina bere taldeko arduradunak eskegitzen zituan argazkiak egunero. Distantzia handia egoan, baina egunero egiten ebana ikusten genduan.

Ohitu nintzan egunero Facebookean sartzean eta orain, ordenagailu baten aurrean jartzen nazanean, Facebooka zabaltzen dot eta lagunak burutazioak irakurten dodaz, komentarioak idazten dodaz, haren argazkiak eta bideoak ikusten dodaz...

Facebookeri esker badakit nire laguna Alberto irakaslea dala, eta Baskonia saskibaloia taldearen zale amorratua dala; Zuriñe oso marrazkilari ona dala baina oso triste dagoala bere azken nobioak itxi daualako; Martinek segiduten dauala negozio barriak topatzen; eta abar.

Argazkigintzea eta sukaldaritza interesetan jatazanez, horreen gaineko profilak topatzen dodazanean "Me gusta" sakatzen dot eta egunero ikusten dodaz sarrera barriak.

Facebook, beste gauza askoren moduan, oso tresna interesgarria eta erabilgarria izan ahal da, baina larregi edo pentsau barik erabilten badogu, kaltegarria izan daiteke. Kontuz ibili behar da geure buruari buruz zabaltzen dogun informazioagaz, ez daki-gulako norik irakurten dauan eta zertarako erabilten dauan.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



IRATXE ETXEBARRIA

Sochi 2014

Garrantzitsuena parte hartzea dala esan eban Pierre de Coubertin baroiak, Joko Olinpiko modernoan aitak, XX. mende hasieran. Baina non gelditu da Joko Olinpikoen espiritua?

Gaur egungo Joko Olinpikoak, baroi frantsesak bultzatu gura eban espiritutik urrun dagoz. Atleten arteko lehia sanao aurrikusten eban, ez kirolari profesionalen arteko burruka sutua. Hainbatetan gainera, legez kanpoko sustantzien laguntzeagaz bultzatutako norgehiagokea.

Burruka hori, gogotsu bultzatzen dabe estaduetako kirol agintariak be. Historia liburuak gerra hotza aspaldiko kontua dala dinoe, baina domina kopuru handiena lortzeako lehian, argi eta garbi ageri dira orduko blokeak: AEB eta Britania Handia batetik, Txina eta Errusia bestetik.

Errusiako Sochi urian egi-ten dabizan Joko Olinpikoetan marka guztiak apurtu ditue. Hasi

orduko apurtutako markez nabil berbetan, ez kirolariak egingo dituen horreetaz.

2007an Errusiako gobernuak, hautagaitza aurkezterako orduan emondako aurrekontua baino 4 aldiz gehiago gastau dabe Stalinen oporlekua izandakoan, Joko Olinpikoetarako atontze lanetan: 35.000 miloe euro.

Beijingoetan be (2008) horixe nabarmendu genduan, historiako garestienak zirala. Orain be, inagurazino ekitaldia hasi orduko, horixe izan da albiste, gay eta lesbianen kontrako legedi homofoboaren ostetik.

Gehiegikeria batzuk aitatzearen, inagurazino ekitaldia egiteko eregitako Fisht estadioa, 2018ko munduko futbol txapelketara arte ez da barriro erabiliko.

Ez du honek Joko Olinpikoen kontrako zutabea izan gura baina ago zabalik inagurazino ekitaldia ikusten nabilela, hamaika itaun etorri jataz burura.

Oraingo honetan baina, Beijingo edo Londresko inagurazino ekitaldietako perfekzioaren kontra, espektakulua ez da bikaina izan. Bost kontinenteen arteko anaitasunaren erakusle diran eraztunetako bat ez da biztu. Anaitasuna erreala ez dan seinale ete?

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Ur bila basamortuan lez

Behin, hitzaren bila abiatu zinen.

Ele xalo eta esanguratsua.

Berba zehatz bezain sakona aurkitu gura zenuen.

Gau ameslarietan aurkitzearen uste gozoak, amultsuki kulunkatzen bazintuen ere; goiz errealistek, ustearen ustela erakusten zizuten.

Hitza (h)elezina zitzaizun.

Eta hitza gabe, hitsa zen bizitza.

Baina halako batean, iritsi zen bedatsa, eta eguzki izpitsu batek argia barreiatu zuen zure lurraldean.

Egunsenti berriak hitza eman zizun.

Hitza hartu eta eskuz zizelatuz, mailu bihurtu zenuen. Mailu horren ondoan, igitaia idoro genuen guk, eta une horretan hasi ginen ur bila basamortuan lez...

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Negu erdian gagozanean, urtero-urtero hasten dira arbolak loratzen. Hori ez da albiste. Edurra, haizea, euria... tenporala bai, neguan eguraldi txarra egitea normala izan arren. Horrek hartzean dau gure atenezina eta berbagai dogu. Baina arbolak hor dagoz lorlan.

Bakotxaren eguneroko bizitzan be, laneko zein hartu-emonetako tenporalak hartzean dabez gure pentsamentuak, behar baino gehiago seguru asko. Kimu berdeak oraindino ez akaso, baina eguzkiak epelzen dau txitean-pitean eta arbolak lorlan dagoz.

Negua laster joango dan seinale.

"Elurrak joan direnean nire mendien artean

eguzkia teloian atzekaldean da"

kantetan dau Zea Mayseko Aiorak. Negua joango da eta.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegeta Zerbako 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasoibide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasoibide.com Tel: 94 657 54 50

ARRATIA

Arantzazuko Udala auzibidean, bandera espainolaren legea ez betetea leporatuta



Arantzazu.

Erredakzioa

Nonok Espainiako bandera "ostu" eta bandera ez eukitearren auzibidean da Arantzazuko Udala. Izan be, Arantzazuko alkateak Begoña Llanok azaldutakoaren arabera, legea betetea ebatzi eban Udalak, eta Espainiako bandera ipini eben udaletxean, ikurrinagaz batera, legea betetea derrigorra dalako. Baina obra batzuk egiteko, baten bat udaletxean sartu eta bandera eroan egin eban. Hau gertatu ondoren "Espainiako Delegatuak eskatuta Arantzazuko alkatea inputatzea suposatu dau", eta auzia ipini dabe Arantzazuko Udalaren kontra, udaletxean bandera espainolarik ez egoalako.

Auziari aurre egiteko, Foru Aldundiaren aholkularitza juridikoarengana jo eban Arantzazuko Udalak, baina ez dabe Aldundiaren laguntzarik izan ustez legea bete ez dabelako. "Papelak bialdu doguz gure alegazioak eginda, eta orain ikusi beharko da zer gertatzen dan, ze multa edo zer ailegetan jakun" dino alkateak.

Ubiden ez dabe ikurrinarik ipiniko

Ubiden, Espainiako delegaritzatik udaletxean bandera espainola ipinteko aginduari kontra egiteko "indarririk (gehienbat ekonomiko) ez dagoala" konturatuta, legea bete eta bandera hori ipiniko

dabe, baina ikurrina ez. "Holako inposaketa baten ondoan ezin da euskaldunak ordezkatzen gaiten ikurrina egon" dinoe udaletik. Exeetako balkoietan ikurrina ipintera animetan dabez herritarrek.

"Euskal presoak eta iheslariak etxera" banderatxoa lekuz aldatuko dabe Zeberion

Euskal presoak etxeratzea irudikatzen dauan banderatxoa udaletxetik kendu eta beste udal eraikinetan ipiniko dabe, eskola zaharran eta ermitan, hain zuzen be. Zeberioiko Udalak mozino bat onartu dau kentzeako agindua bete, eta auzibideari uko egiteko.

2013ko garagarrian heldu jakon Udalarik ikur hori udaletxeko fatxadatik kentzeako lehenengo agindua. "Hainbat tramite burokratikorik ekin eta gero, EHBilduren ustea da alferrikakoa dala auzibideari eustea eta prozesua gehiago luzatzea, ezaguna dalako beste udalerririk batzuetan auziak daukan amaitukerea, hau da, banderatxoa derrigorrez kendu beharra" dino udalak onartutako mozinoak.

Horregaitik ebatzi dabe banderatxoa udaletxeko fatxadatik kentzea eta eskola zaharrean eta ermitan "udal eraikinak diran neurrian" banderatxo hori ipintea.

Bandera hau udaletxeko fatxadan ipintea Udalbatzak 2011ko urri lehenengoaren 29an ebatzi eban gehiengo osoz.

ARANTZAZU

Etxe kaleratzeak ebitetako diru partidea dago aurtengo aurrekontuetan

Erredakzioa

Urtilaren 28an onartu ziran Arantzazun 2014rako aurrekontuak, EAJ-PNVren 3 aldeko botoakaz eta Bilduren kontrako boto bategaz. Aurrekontu hau 443.712 eurokoa da. Zergen bidez diru gitxi sartzean da Arantzazun, "ia" diru-sarrera guztiak Udalkutxakoak dirala dino Bego Llanok alkateak.

Igazko diru soberakina izango da aurtengo eta diru hori azpiegiturarako erabili gura dabe: Aran-

tzazugoitiko arkitektura oztopoak kentzeako, ortu santu ingurua urbanizetako eta gasa eta zuntz optikoa sartzeako, hain zuzen be. Dana dala, batzar bat egingo da diru hori erabilteko proposamenak batzeako.

Lokalak eta ekipamentuak

Frontoi inguruan gazteentzako ping-pong, mahai-futbola edota beste joko batzuk ipinteko, 8.000 euroko diru partidea dago. Edadekoentzako gimnasia egiteko ekipamen-

tua be ipiniko dabe herrian.

Etxe kaleratzeakaz kezkatuta dagoz Arantzazun, eta holangoi urtenbide bat emoteko 6.000 euroko diru partidea daukie. "Kasu bat egon zan" Arantzazun eta udalaren laguntza izan ebala dino Llanok. "Mankomunitatekoak ikusten badabe kasuak urtenbidea daukala" eta bankuagaz birnegoziau egin behar dala hipotekea, tarte horretan personea kalean geratu ez daiten, diru bat dago eta bertan biziteko lokal bat be badauka udalak. "Arantzazu da herri bakarra Arratian emergentzia kasuetan lokala daukana jentea jasoteko" dino alkateak.

Enpleguari jagokonean, klausula sozialak sartuko dira pleguetan eta unibersidadeagaz eta Lanbide Heziketako zentruakaz hitzarmen bat sinatuko dabe gazteak praktikak egin daiezan herrian.

Euskereak 2.000 euroko partida bi izango ditu. Bata euskerea bultzatzeko egiten diran ekimenai lagunduteko, eta bestea, euskera klaseetara joaten diranai lagunduteko.



Arantzazuko udaletxea.

ZEBERIO

Onartu dira 2014ko kontuak

Erredakzioa

Aurtengo kontuetan diru partida bat zabaldu da Auzolan izenagaz eta beste bat herri batzarretan proposatutako hainbat ekimenterako: suten kontrako sistemea, umeentzako jolas eremua eta zaborrontzietarako, hain zuzen. Udal taldearen ustez funtsezkoak diran egitasmoetarako be ez da dirurik faltako, hau da, HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra), Nekazalgunea eta Herri Bideeta-

rako. Herriko Ondarea jagoteko Auzolandegiak programara joko dabe Zeberion eta gastua kontrolatuko protokolo eta ordezkaritza gastuak "minimoak" izango dira. Kontuak urtilaren 30ean onartu ziran, Bilduko aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzinoagaz.

Egoera finantzieroa hobetuten

Igazko aurrekontua defizitagaz zarratu zan eta aurtengo kontuetan hori konpenseatuko diru sarrera eta gastuen artean 42.000 euroko

aldea dago; sarrerak 1.377.548 eurokoak dira eta urtekerak 1.335.500 eurokoak. Igaztik hona zama finantziero batzuk kendu ditu Udalak, baina ondino geratzen dira beste batzuk 2011ko Udalkutxa negatiboan, berbarako, eta mailegu bat 2015ean kenduko dana.

Nobedadeak

Aurreko urteetako beharrianak ez ditu baztertzen aurrekontuak eta beharginen lan baldintza ekonomikoak eta gizarte ekintzarako partidak bermatzen dituala dino Ana Belen Alberdi Zeberioiko alkateak. Nobedadei jagokienean, "parte hartze garapenaren barruan partida barria dago, Auzolana, Udalaren baliabide ekonomikoai etekin gehiena ateratzeko. Herri batzarretan proposamen batzuk egin dira. Horreen artean, bata izan da auzo batzuetan suteen kontrako oinarrizko sistema bat eukitea, suhiltzaileak etorri baino lehen zerbaist egitea".

Gastuen kontrola zehatza izango dala dino alkateak eta horretarako, inbersinoan egingo dala eraginkortasun energetikoa bilatzeko. 20.000 euroko diru partidea dago argiak aldatzeko.

Herriko ondarea zaintzea eta Ermitabarriko ermitea zaharbarritzea, Auzolandegiak Jaurritzako programearen bidez egin gura dabe Zeberion eta eskaria eginda dagoala esan dau Alberdik.



Zeberioiko udaletxea.

LEMOA

Udal kontratazioak erispide sozial eta etikoak izango ditu kontuan

Erredakzioa

Lemoako Udalak, udaleko kontratazioetan erispide sozial, ingurumen, etiko, laboral, hizkuntza eta bardintasunekoak sartzeako jarraibideak onartu zituan zezeilaren 5eko udalbatzan. "Dokumentu honen helburua da kontratazio

publikoan, ohiko erispideez gainera, interes komunitarioai onura ekarriko deuseen baldintza sozialak bermatzea da eta administrazioak, bai zerbitzu kontratazioetan, obren kontratazioetan edota ondasunak edo hornidurak eskuratzeko erosketetan arduratsu jokatzea" azaldu dabe udaletik.

ZEBERIO

Julian Uriak 104 urte

Erredakzioa

Urtailearen 28an Areiltza auzuneko Auzkorta baserriko Julian Uriak 104 urte bete zituan. Urte gogorra izan da atzenengo hau Julia-nentzat. Izan be, orain urtebete, zezeilaren 5ean, hil zan bere arreba Lorenza 106 urte bizi ondoren eta urri bigarrenaren 22an etxea erre jakon, etxe bi kiskali ebazan sute gogorrean. Ha ta guzti be, "gogor" jarraituten dauala dino

Jose Mari Ipiñazar lagunak.

Orain, etxea konpondu bitartean, auzuneko batek itxitako etxean bizi dira bera, bere loba Felisa 83 urtekoa, eta honen senarra Migel, 88 urtekoa. Etxea guztiz kixkali zan arren, etxera laster bueltauko dalako esperantzeagaz bizi da Julian. "Lemoako konstruktora bat dago etxea konpontzen, eta oso arin doaz konponketa lanak" adierazo deuto BEGITURI familiako lagunak.

ARRATIA

Tratu txarrak jasoten dabezan andren eta arretako alkarteen artean bitartekariak

Erredakzioa

Landa XXI, Landa Inguruko Emakume eta Sendien Elkarrekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza sailaren Tartekari Sarea izeneko programan parte hartuko dau. Honen helburua zubi lana egitea da etxean tratu txarrak sufriduten dabezan andren, andra alkarteen eta arreta emoten deuseen alkarteen artean. "Biktima diran andrentzat erreza-goa edo ez hain traumatikoa izan daiteke laguntza euren auzune, eremu edo uriko andren alkarre baten eskatzea, zuzenean zerbitzu edo erakunde batera jotea baino" dinoe Landa XXIekoak.

Zornotzan daukie bulegoa alkarre honetakoak baina zerbitzu Arratiako eskualdera zabaldu dabe. Eurekaz kontaktuan ipinteko 688 870 871 telefonora jo daiteke.

LEMOA

Hileta zibilak udal lokaletan ospatu daitezke

Erredakzioa

Personen eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijioso eta kulturako bermatzeko Lemoako Udalak heriotzagaitik agurrak ospatzeko araudia onartu dau. Hileta zibilak egin ahal izango dira hainbat udal lokaletan: kiroldegian, udaletxeko Batzar Aretoan, Arraibi eta Elizondoko plazan. Araudi honen helburua, erlijino barik bizitea hautatu daben personai, hiltzen diranean, zeremonia duin eta personala eskeini ahal izatea da.

"Eskaera ofizialik ez da egon, baina galderak bai" dino Idoia Pujana zinegotziak. Izan be, hildakoari agur egitea, beharrezkoa da persona hori maitatu izan dabenentzat. Gurean urte askoan eleizaren bitartez baino ez da egin agurra, baina gero

eta laikoagoa dan gizarte honetan, heriotzeagaitik agurrak ospatzeko udal lokalak preminazkoak bihurtu dira. Estadu ez-konfesional eta laiko baten, erakundeen erantzukizuna da hau.

Hileta zibilak

Udalak zehaztuko dau zein lokaletan egingo jakon hildakoari omenalditxo edo agurra. Horretarako, aukeratutako egunean eta orduan ohiko jarduerak oztopatuko ez dirala hartuko da kontuan. Lokala apaindu ahal dabe hildakoari omenalditxo egin gura deusienak, alde zurretik udal zerbitzuari jakinarazota. Eskareta, "bidezkoa dana ebazteko lehen tasun nahikoaz" egingo da, beti errespetatuz lekuaren harmonia eta ezaugarriak, eta eskatzailearen kargura izanda arrazoi honengaitik sorrerazten diran gastuak, araudian azaltzen danaren arabera.

Ospakizunak ezingo dira egin gorpua bertan dala baina baimenduko da hautsezko atabakak egotea. Zeremoniaren gehienezko iraupena berrogeta bost minutuko izango da.

BEDIA

Zubia barriztu bitartean, oinezkoak ezingo dira pasealekuan ibili

Erredakzioa

Lekubaso errekearen gaineko zubia barriztatzeko lanak zezeilaren 5ean hasi ziran eta hilabete eta erdi inguru iraungo dabe. Bitartean oinezkoak ezingo dira

ibili Ibaizabalen ondoko pasealeku horretatik. Eroso-Ugarte auzuneko eta Usansolok muga egiten daben puntuan dagoan zubia barriztatuko da. Euriak eta Lekubaso errekearen ur-goraldiak kaltetu daben zubia konpontzen

hasi dira, baita Galdakaotik Garabi lez ezagutzen dan ingurura joateko biderei eusten deusan harri-hormea be.

Zubia barrizteko gaur egungoa baino handiagoa izango dan hormigoizko marko aurrefabrikatua eregiko da, behera etorri dan horma bat be bai eta Garabi auzunerako bide tartea zolatu egingo da.

Lan honeek, 88.532 euroan esleitu dira, hasikerako lizitazio prezioa baino 10.000 gitxiagoan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzea daukie.

ARRATIA

Eskiatzera joaten zara?

Erredakzioa

Gure eskualdea sano mendizalea da. Horretan ez dago dudarik. Mendi taldeak, eskalatzaileak eta abar ugari dira, eta mendi urtekerak arrakasta handia izaten dabe. Neguan, eskiatzera urtekerak antolatuten dabez mendi taldeak. Sasoi baten, gitxi batzuk baino ez ekien eskiatzen, gaur egun, bizikletan ibiltea lez, badirudi jente gehienak dakiana. Hauze izango da gure itauna: Eskiatzera joaten zara? Erantzun posibleak:

1- Bai, sarritan; 2- Txitean-pitean mendi taldeak antolatutako urtekeran hartzean dot parte; 3- Behin



edo behin joan naz; eta 4- Ez, inoz ez naz joan.

Horoskopozalerik ez BEGITUN

Aurrekoan ia 2014ko horoskopoa irakurri daben itauntzen geuntsen gure irakurleai. Erantzun daben guztiak (% 100) ezetz erantzun dabe.

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 06

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

SESOREAK basola Emaldi
ABOKATUA
• 620. 57.86.04
• asierbasola@hotmail.com
• Bilbao-Zeanuri

begitu
entzaileak

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

ARRATIA

Eskola garraioko begiraleak akordioa lortu dabe

Erredakzioa

Hamar greba egun eta alkarretaratze eta mobilizazio ugari egin ostean, zezeilaren 4an amaitutzat emon eben eskola garraio, janleku eta jolaslekuetako begiraleak greba mugabakoa akordioa lortuta. Lan erreformaren kontra hitzarmena "babestea" eta soldatak igotea lortu dabe beharginak.

Lortutako akordioaren indarraldia 2009ko urri lehenengoaren 1etik, 2016ko bagilaren 30era artekoa da. Hitzarmena, lan erreformatik "babestea" lortu dabela dinoe begiraleak, aurrera egiteko mugarik ez daukalako, eta ez dau salbuespenik egiteko edo mal-

gutasunerako biderik emoten. Aurreko hitzarmenaren artikulatuak errespetatu dira, baita Bizkaiko eranskinak be. Soldateari jagokonean, 2013-2014 ikasturtean % 3ko igoera izango dabe eta hurrengo ikasturte bietan % 2ko igoera bakotxean.

Urtebete burrukan

Hitzarmen kolektiboa, enpresakaz urtebetez negoziatzen ibili dira beharginen ordezkariak daukien ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek. Mobilizazioak be egin ditue begiraleak, lanixteak urtailaren 13tik hasita eta 27tik akordioa lortu arte greba mugabakoa egin eben, barbarako.

IGORRE



Negarra enpresea.

Hogeta hamar behargin kaleratu gura ditue Negarran

Erredakzioa

Igorreko Negarra lantegiko enpresa zuzendaritzek 30 lagunentzako enplegu iraungitze-espedita aurkeztu dau. Negoziazioetan dabiz enpresea eta beharginak, baina beharginak kezkatuta agertu dira ez dabelako uste enpresek espedita kenduko dauanik. Enpresa batzordea CCOOko 5 ordezkari, ELAko 3k eta LABeko 1ek osotuten dabe.

Zezeilaren 12an Lan Ikuskaritzan egon ziran Negarrakoak. "Guk geure arrazoiak eta enpresa zuzendaritzek bereak aurkeztu genduzan. Orain etxon behar dogu, baina txarto dagoz gauzak" dino Gorka Odriozola CCOO sindikatukoak. Egoerari ur-

tenbidea emoteko batzarrak egiten dabiz, eta ez dabe alde batera ixten mobilizazioetan hasia.

Burruka luzea

2012an enpresek 59 langile kaleratzeko espedita aurkeztu eban. Greba eta beste mobilizazio batzuk egin ostean laudo bat onartu zan. Atzenean 30 kaleratze egon ziran, eta erregulazio espedita bat, 2012ko urri bigarrenetik 2013a amaitu arte indarrean egon dana. Orain enpresek beste 30 behargin kaleratzeko, enplegu iraungitze espedita aurkeztu dau.

Negarrak tximiniak eta galdara elektrikoak egiten ditu eta 120 behargin inguruk egiten dabe behar bertan.

ARRATIA

Autobusa ipinteko sinadurak batzeako eskaerea interneten

Erredakzioa

Arteko Gillermo Diaz Sanzek, Zeanuritik Lemoako tren geralekuraino autobus bat ipinteko eskaerea sortu dau change.org webgunean. Eskaerea Itziar Garamendi Garraio eta Herri Lanetako Foru Diputaduari egingo jako. Guztira 100 sinadura behar dira eta erdiak baino gehiago batu dira honezkerok.

Gillermo Diaz garraio publikoaren sarritasun eskasaz kejetan da. Lemoako tren geltokira doan autobus bat ipinita, Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu eta Igorre Lemoagaz lotzeako, autobus sarritasun handiagoa, eta beste destino askotara ailegetako errezatsuna lortu gura dabe sinatzaileak.

ARRATIA

Gurutze Gorriak eta Arratiako Udalen Mankomunidadeak lankidetzak akordioa sinatu dabe

Erredakzioa

Laguntza eta esku-hartze sozialerako proiektuak garatzeko eta martxan ipinteko egin dabe lankidetzak akordio hau. Mankomunidadeak 14.000 euroko diru laguntza emongo dau, persona nagusai eta egoera ahulean zein gizarte bazterketako egoeran dagozan personai laguntzeko Gurutze Gorriak programak martxan ipini daiazan. Boluntariotza eta ikasketa programak be martxan ipiniko dira diru laguntza honegaz.

Mankomunidadearen Gizarte Zerbitzuak laguntza behar dabenean eta arazoak daukiezan familien kasuak koordinatu eta Gurutze Gorria bideratzen dabez. Elikadura edo etxebizitza arloko prestazioak eskatu dabezan personai be



Sorriketa, Gorospe eta Aizarna.

laguntza ekonomikoak emoten jakiez, aurrerapen lez. Elikadura osasungarria eta higiene arloetan be jarduten da.

Boluntariotza bultzatzeko kanpainak be egiten dabez lankidetzan Mankomunidadeak eta Gurutze Gorriak. Horren adibide, "Jolasten eta ikasten" proiektua da, umeen ikasteko ohiturak bultzatzeko sortu dana.

LEMOA

Genero Parekidetasunerako Lehenengo Plana

Erredakzioa

Martia eta apirilera hainbat ekintza proposatu ebazan Idoia Legarretak Lemoako Genero Parekidetasun Planaren aurkezpenean. Ekintzok, aniztasunaren aldeko murala, indarkeria sexistaren inguruko zineforuma eta tailerra eta hausnarketa ibiltaria dira.

Diagnostikotik abiatuta eta han ikusten ziran preminak beteteko, hiru ardatz ditu Planak. Lehenengoak, enpoderamentua eta balore aldaketak deritxo. Estereotipoak desbardintasuna eragiten dabela eta "estereotiporik bako hartu-emonak izateko, balio barriak sustatu" behar dirala eta horren inguruan zein lanketa egingo dan eztabaidatuko dabe parte hartzaileak aurrerantzean.

Bigarren ardatza, indarkeriaren prebenzioa eta arreta da. "Zer egin gure herrian egunero entzuten eta ikusten doguzan adierazpen sexistaren aurrean?" itauntzen dabe Planekoak eta erantzuteko

moduak adosten saiatuko dira parte hartzean dabenek.

Atzenengo ardatza, bizitza onerako ekonomia eta jentarte antolaketa eredu da. Lan merkadu ekitatibo eta sostengarria zelak bultzatu hausnartuko dabe honen gainean jarduten dabenean.

Ekintzak

Horreek helburuorrek lortzeko gizartearen konziazioa ezinbestekoa dalakoan, hainbat ekintza proposatuten dabez. Martiaren 6 eta 7an aniztasunaren aldeko murala egingo dabe. Hilaren

6an ideak sortzeko tailerra izango da Maraka taldearen eskutik Jubiladuen Etxeko goiko aretoan eta hurrengo egunean murala koloretzatuko da, eskolako patioan.

Indarkeria sexistaren inguruko zineforuma martiaren 20an izango da eta hausnarketa ibiltaria apirilaren 4an eta 26an. Matxalen Legarretagaz ekidatean eta parekidetasunean oinarritutako jentarte eredurako aukerak eztabaidatuko dabez 4an; eta 26an, partaideak Maraka taldeagaz sakonduko dabe hausnarketa horretan modu ibiltarian.



Lemoako udaletxean egin zan aurkezpena.

Olaetxe
OPTICA CENTRAL

- Graduzinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

OPEL

ibalgano, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

bbk

ARA OTZ
Laguntzen O Jabetzen!

Tel. 94 637 601-08 • email: info@aramoto.com

Partido Ugarrena 2 de. Adolfo Diaz - Ibañeta

HISTORIA

Arratia, Nafarroako merindadea

Aitzol Altunak igazko abenduan Lemoako Karabie Gaztetxean egindako berbaldian, Arratia Nafarroako merindadea izan zala esan eban. Historiazale galdakaoztarrak bialdutako "Arratia, Nafarroako merindadea" artikuluan gai horri heltzean deitso.



Bildosola jauregiaren aurrean dagoen baserria, torretxe baten oinarria daukana.

Aitzol Altuna Enzunza

Nafarroako konde eta jaunak, Goi Erdi Aroan, tenente hutsak baino ez ziran azken baten: zerga-biltzaileak, justizia ezarten ebanak eta Nafarroako erreinuaren defendatzaileak, erregearen izenean. Normalean, hainbat tenentziaren buru izaten ziran, eta erregeak, behar izan ezker, beste batzuetara mobiduten zituan, erreinuaren beharrezan arabera. Bizkaiko konderrria edo jaurreria izeneko tenentzia lau merindadek edo unidade administratibok osotzen eban: Busturiakoak, Markinakoak, Uribekoak eta Arratiakoak.

1075. urtean egiten da berba lehenengoz Bizkaiko merindade baten gainean, eta, apur bat geroago, Durangaldean, lurretako San Martin ermitearen gaineko salmenta-eskritura baten; bertan, Abadiñoko abatak parte hartzean dau, eta honako hau ageri da: "...Blagga Ezteriz merino en tota Bizcahia". Merino bat izaten zan, beraz, merindadeetako burua. Merindadeak Bizkaiko Batzar Nagusiak baino

maila bajuagoko batzarrak egiten zituen. Batzar horreetan, eskualde bakoitxeko gaien gainean egiten zan berba: kaminoak konpontzea, herri-lurrak zelan erabili, animalia kaltegarrien kontrola, eta abar. Mendi-lepoak izaten ziran merindadeen arteko mugak.

Arratiako bailara Bizkaiko lau merindadeetako bat zan, eta 1051tik jasota dago baegoala "Senior lope Garçeiz arratiensis" izeneko jaun bat. Busturiako Axpeko ("Izpea" idatzita) Andra Mariren donazioaren sinatzaileetako bat da, Bizkaiko jaun Eneko Lopez "Ezkerra" gaz ("Enego" sinatzen dau) eta Iruñea-Nafarroako errege Santxo Gartzea IV. agaz batera ("Naiarakoa"): "reinante Garsea rex in Pamplona, in Castella Vetula et in Alava" (mugako lurrak).

Halanda ze, Barazarreko kamino merkataritzaz bide garrantzitsua zan Nafarroako erreinu baskoia- ren barruan. Kamino horrek Bizkaia eta Arabako Lautada lotzean zituan Vitoria-Gasteizko uri nafarreraino (1181). Zeanuritik Barazarreko bidea ez joian gaur eguneko doan

lekutik; orain dala gitxi topau dan harbide batek Otzerinmendi, Undurraga, Ipiñaburu eta Abarakorta zeharkatzen zituan Saldropora iristeko.

Eta "Lope Garçeiz arratiensis" nor ete zan; ba, Juan Eduardo edo Eustaquio Delmas bilbotarrak (1820-1892) *Guía histórica descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya* liburuan dinoanez, zumeltzutarren torrea, Urkizun egoana, gaur egun San Andres eleizea dagoan lekuaren ondoan, 781. urtean eregi eban Santxo Noreñakoak. Zumeltzutarrak Elexabeitikoak ziran izatez. Artea edo Gaztelu-Elexabeitiko eleizatea Elexabeitiko San Migel (XI. mendeko ermitea daukana) eta Gazteluko Andra Mari errepublikak batuta sortu zan. Gaztelu izena Fortunio Martínez Zumeltzuko kapitain nafarraren aginduz 869. urtean eregitako gaztelutik jatorri; Barazarreko bidea kontroletan eban, eta XVI. mendean barriro eregi zan. Gaur egun, "gaztelu edo torrea" izenetik ezagutzen da. Ez dirudi Delmasen datak oso fidagarriak diranik, baina, seguruenik, zumeltzutarrak Arratiako familiarik garrantzitsuena izango ziran Nafarroako erreinuaren mendeetan.

Baina ez zan dana bakea estadu baskoi zaharrean. Gaztelako errege Alfonso VIII.ak, adinez nagusi egin zanean, bere arbasoen ahaleginai jarraipena emonaz, barriro ekin eutsan Nafarroako erreinuaren konkisteari, eta 1173ko urri lehenengoaren 18an eraso egin eutsan. Erreinu baskoian, On Bela Ladron Gebarakoa ("Ladron de Nabarra"), Bizkaiko jauna edo tenentea, erreinuko familiarik garrantzitsuenetakoa zan; lurrak eta torretxe nagusi bat eukiezan Araban (Garaion), eta Oñatiko jaunak ziran. Bizkaiko jaun titulua jaubetzan euki gureak, Gaztelak Nafarroari inbaditutako lurrak kontrolau gureak eta Atapuercako eta Peñalengo errege-hilketen eraginez (1054koa eta 1076koa,

hurrengorik hurrengo) erreinu baskoia eukan ahultasunak bultzatuta, Lopez Harokoak traizionau egin eban Nafarroa, eta, ondorioz, Nafarroa Mendebalde osoko eta, beraz, Bizkaiko jaurreko buruzagitzatik kendu zituen eta, hareen orde, z, gearatarrak ipini ziran.

Londresko arbitrajeko laudora jo eban gaztelarrak eta nafarrak, eta laudo horrek, 1177an, itzuli egin eutsazan Nafarroari inbaditutako lurrak, baina gaztelarrak ez eban Arrigorriagako Malmasineko gaztelua itzuli gura izan, hain zuzen be, Ingalaterrako uriburura joandako enbaxadore baskoia beren beregi erreklametan eban. Malmasineko gotorleku nafarrak "Etxebarriko bidea" eritxonaren bidegurutzea kontroletan eban. Bide horrek Bizkaiko jaurreko uriburua –Bermeo– eta mesetea lotzean zituan Altubetik, eta bidegurutze horretan lotzean zan Castro Urdialestik Balmasedara etorren bidea, Malmasinera Begoñako portuan kokatutako alkazarretik (Bilbao) eta Ibaizabal-Nerbioiren gaineko zubi famadutik (San Antongo zubia deitzean jago gaur egun) igoten eban.

Holan etorri zan Santxo Galdakoa eta Torrezabalekoa, Nafarroako errege-erreginen senidea. Erreinu uriburutik etorri zan eta eskualdea biztanlez bete eban erregearen aginduz. Lehenengo, Bedian parau zan biziten, Galdakoa parrokia zana herrian, eta, gero, Galdakoa eroan eban bere oinetxea, Zabalara (gaur egun, Zabalea). Bertan, "torre edo gaztelu" bat eregitako agindu eban, Malmasinetik hurrean egoan gotorlekua. Bedian Santxoren semea gelditu zan, aitaren izen bera eukana, Tosubandoko torretxean (Gortazar jauregitik hur). Gaur egun ondino zutunik dago, eta jasota dago gitxienez 1075ekoa dala. Santxo, semea, Teresa Aialakoagaz ezkondu zan, Feman Aialakoa boteretsuaren alabeagaz.

Era berean, Nafarroak indartu egin eban Barazarretik pasetan zan Vitoria-Gasteizerako bidea. Iurretatik, Durangoko uriaren ondo-ondotik (Durangori Santxo VI.ak, jakitunak, emon eutsan uri-gutuna 1180 inguruan), "Yurregoikoa" tarrak etorri ziran Arratiara; gitxi gorabehera, 1198tik dagoz Arratian. On

**Bizkaiko konderrria
edo jaurreria izeneko
tenentzia lau
merindadek osotzen
eben: Busturiakoak,
Markinakoak, Uribekoak
eta Arratiakoak**

946 319 008
658 195 091

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galantabizkaia

HERRIKO BENTA

HOSTAL

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (IBORRA)
Tel. 94 631 72 56

Agirre

Pellet eta egur salmenta

616683613 (Iker)
ikerdimia@yahoo.es
Igorreko Industrialdea
F11-3B

Berezitu

Gluten eta laktosa bako
ogi eta gozokiak

Bertan eginda
Murrizketa Doko gogoko kapritxoak
Eskareak hartzean dira

Lehendakari Agirre Elorbidea, 11 - Igorre
Telefonoak 945 737 280 eta 692 316 166
www.berezitu.com - berezitu@hotmail.com

Celinosen ondorengoak ziran eta errege-odol nafarra eukien, lehen aitatutako J. E. Delmasen arabera. lurretargoikoa familiakoak, denpo-reagaz, izena emon eutsien eleizate barri bateri: Igorre edo lurre. Eleizate hori muga eta Baskoniako kostaldea eta barrualdea lotzean zituen errege-bideak indartzeko testuinguruan sortu zan. Torretxea Bildosolako jauregi bihurtu zan eta, gaur egun, Arteako udalerrien barruan dago.

Hauxe dino Bizkaiko lehenengo historialariak, Lope Gartzia Salazar bandokideak, Portugaleteko preboste eta Castro Urdialesko merinoak (1399-1476): "En el año que la villa de Vitoria (fundada en 1181) era del reino de Nabarra (antes de 1200), havia una linaje de caballeros en una aldea cerca de ellas que llamaban e llaman agora San Martín de Avendaño, que eran poderosos en la comarca, e fasian continuamente muchos enojos a los pobladores de Vitoria, de lo cual todo el dicho concejo se enviaron querellar al rey de Navarra, su señor, e fallaronlo en una huerta mirando con algunos caballeros que estaban con él, como le dieron su querella, tomo el una espada al mensajero dellos e corto con ella unas días cabezas de verzas e dixoles "los de vitoria sodes para poco que a los que asi vos fatigan debriades les hacer como yo fise estas verzas".

Con esto se fueron a la dicha villa e acordaron en aquello, todo el pueblo levantaronse una noche e fueron sobre aquellos caballeros de Avendaño que allí fasian su vivienda, e sus palacios e heredamientos que estaban descuidados, e quemaronlos e mataronlos a todos con fijos e mujeres con toda su generación, sino un mozo, hijo mayor dellos, lo saco de noche envueltos en sus vestiduras, e fuese con él a Arratia, e criollo allí Don Sancho de Galdacano, hijo del caballero de Galdacano, e seyendo ya ome, ovo convención con la dicha villa que tomase orden de la iglesia, que no curase de fecho de caballería e que entrase en la tierra, e



Zubizarre.

fisieronlo arcipreste de Alava, e salió omo para mucho, e tomo por manceba un fija de Don Sancho García de Zurbano... e fizo en ella a Juan Pérez de Abendaño".

Burruka horreek ohikoak ziran uri barrien eta jaun handien artean; izan be, uriak erregearen aurrean kitutuen zituen kontuak, eta erregeari ordaintzen eutsien merkataritz-pribilegioengaitik ordaindu beharreko zergak, eta, holan, Arabako lautada kontroletan eben jaun handien kontroletik kanpo gelditzen ziran. Sarraski hori gorabehera, abendañotarrak (gebaratarren ondorengoak; Bizkaiko jaunak) Urgoitiko torretxea eregi eben Erdi Aroko Puentelatorreko zubiaren ondoan, Galdakaon (Bekea auzunean, ondoko baserriak armarria gordeten dau ondino be). Ibaizabalen gainean, zubi haren antzeko egituradun beste zubi batek iraun dau Lemoan: Zubizarre,

Iturritze auzunean.

Lope Gartzia Salazarrek, *Bienandanzas e Fortunas* liburuan (1471) dinoskunez, Juan Perez, Gasteizetik igesean Bediara iritsi zan abendañotarraren semea, Arratian jaio zan 1220an: "Casó con la hija de don Pero Ortíz, Señor de Aramayona (Alaba) y descendiente de los reyes de Navarra". Lehenengo abendañotar arratiarraren ilobea be, Pero Ortíz de Abendaño, Arratian jaio zan 1250. urte inguruan: "pobló en Urquiçu (Igorre), por quanto las comunidades de Arratia enbieron por él porque los agraviavan los de Cumelçu e otros escuderos comarcanos. E señoreó Arratia toda e eredóse en ella. E eredó Aramayona por don Pero Ortiz, su tío. Este Pero Ortiz de Avendaño casó con fija de don Martín Roiz de Gautiques".

Santa Lutzia eta San Kristobaleko eleizatean (gaur egun Igorreko auzunea), lehen aitatutako zumeltzutarrak, Urkizuko torretik, eskualde osoari eraso egiten eutsien; hori dala eta, arratiarrak eurak, gehiegikeria horreei amaierera emoteko, Galdakaoko abendañotarrak deitu eutseen. Abendañotarrak irabazi eben eta torre barri bat eregi eben Urkizun XIII. mendearren hasieran, Pedro Perez Abendañoko buru zala. Bertatik, Arratia osoko jaun eta jaube izan ziran XVI. mendera arte. Kargurik garrantzitsuenak izan zituen, eta Durangalderaino, Elorrioraino, zabaldu eben euren agintea; hain zuzen be, jauregi

itzel bat egin eben bertan.

Gaztelak Mendebaldeko Nafarroa konkistau ondoren, XII. mende amaieran, jaun handiak bando bitan banandu ziran: "ganboatarrak" batetik, Nafarroako erreinu baskoira itzultzearen aldekoak; eta, bestetik, "oinaztarrak", Gaztelaren aldekoak. Abendañotarrak, ganboatarrak izan arren, Arratia osoaren eta inguruko beste herri batzuen gaineko agintea lortu eben (Galdakao, esate baterako). Bai Usansoloko bai Lemoako armarrietan makal-orria ageri da, abendañotarren ezaugarria.

XV. mendean beste 3 merindade sortu ziran Bizkaian: bi Durangaldean (ordurako guztiz integratuta Bizkaian), Durango eta Zornotzako merindadeak; eta bestea, Bediako merindadea. Bediako merindade barria Lemoako eleizateak eta Bediako eleizateak osotzen eben, nahiz eta Bediako artean be Galdakaokoaren menpe egon. Bediako merindadea zan danetatik txikerrena, eta, behar bada, bertako kideetako batek euki eban garrantziagaitik sortuko zan. Lope Gartzia Salazar (1399-1476) bandokidearen aitatutako liburuan esaten danez, urte hareetan: "El linaje de Vedia e de Usansolo son de buenos escuderos antiguos e de Vedia es agora principal del Sancho Ortis de Vedia, que se falla que aviene en siete generaciones del cauallero de Galdano, que fue natural de Navarra, e vino a poblar allí, e viene del de padre en padre".

* **Aitor Erdoziak euskeratuta**

Santa Lutzia eta San
Kristobaleko eleizatean
Zumeltzutarrak,
Urkizuko torretik,
eskualde osoari eraso
egiten eutsien

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

BOXPAL
618 59 81 71
Pintura lanak
Iurgintza
Instalazio elektrikoak (aberiak
lehio eta ateen konponketa)
Pertsiana konponketa
Igeltzerotza
E-posta: boxpalboxpal@yahoo.es

ktibatu ctivate **GLOBAL ACTION PLAN** **IRABAZI**

Ingurumena zainduz Etxean dirua aurreztuz

Eman izena dohainik «Aktibatu +» ekimenerako web* honetan: www.bizkaia21.net

Sari ederrak zozkatuko dira parte hartzen duten familien artean!

* Mankomunitatearen, udalen eta entitate sustatzaileen web orrietan ere eman dezakezu izena.

ARRATIA

BFA DFB **GARBIKER** **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia** **ctb** **EVE** **Erite Vasco de la Energía** **EROSKI zurekin**

PALEA

Zeanurikoak Udaberri Txapelketan

Irati Urien

Zeanuriko palari bikote bi Udaberri Txapelketea jokatu hasi dira Senior kategorian. Paule Goikuria eta Ainhoa Mendiak eta Aitziber Egiarte eta Irati Astondoak osotutako bikoteak dira parte hartzean dabizan palariak.

Partidu bina jokatu dabez eta momentuz ez dabe garaipenik lortu. Izan be, kirolariok hasiberriak dira palan eta oraindino asko daukiela ikasteko dinoe. Lehenengo parti-

dua Goikuria eta Mendiak 30-16 galdu eben Mallabian hilaren 7an, eta Egiartek eta Astondoak be beste horrenbeste, hamasei tantutan gelditu ziran hilaren 8an Basaurin jokutako partiduan. Hilaren 14an Zeanurin jokatu eben bigarren partidua bikote biak Basauriren kontra. Goikuria-Mendiak bikotea 7 tantu-gaz, eta Egiarte-Astondoa 16gaz konformau behar izan ziran.

Hurrengo partidua Getxo, Larrabetzu eta Sopelakoen kontra daukiez hurrengo astegoienetan.



Paule Goikuria, Ainhoa Mendiak, Irati Astondoa eta Aitziber Egiarte.

AIZKOREA

Atutxa eta Mugertza II. Urrezko Aizkorako B multzoan garaile

Erredakzioa

Hilaren 9an amaitu zan Binakako Urrezko Aizkorako lehen fasea eta Aitzol Atutxa dimoztarra eta Mugertza II.ak osotutako bikoa izan zan onena. Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi irabazi eutseen, atzenengo neurketa honetan. Dana dala, finalerdietara bikote biak pasau dira.

45 ontzako enborra zeinek

kolpe gitxiagotan moztu; 45 ontzako zeinek azkarrago moztu; kanaerdiko enborra ebagi eta 60 ontzako enborra zeinek azkarrago moztu izan ziran egin beharrekoak. Lehenengo hiru probak Atutxa II. eta Mugertza II.ak irabazi zituen. Guztira, 21 minutu eta 2 segundo izan zan Mugertzaren eta Atutxaren denporea, eta 22m. 32s. Azurmendi eta Otañorena.

SOKATIREA

Ruth Linaza Irlandan izango da, Mundu Mailako Sokatira Txapelketan

Erredakzioa

Ruth Linaza Lemoako tiralariak badaki zer dan munduko txapelketak izatea. Izan be, 2012an Gasteizko Badaiotz taldeak irabazi eban txapelketa hau eta talde honetakoa da lemoaztarra. Hilaren 20an hasi eta 23ra bitartean, Castleber-en (Irlanda) jokatu da munduko txapelketea eta han egongo da Badaiotz taldea. Dana dala, faboritoak Taiwaneko neska dirala dino Linazak.

Zati bi ditu txapelketak. Lehenengo egun bietan, hilak 20 eta 21, neurketak talde mailakoak izango dira eta han egongo da Badaiotz kategoria bitan, 500 eta 540 kilokoan, hain zuzen be. Beste egun bietan, barriz, nazino mailakoak jokatu da eta Euskal Herriko txapelketak ordezkatuko dabe Euskal Herria. 540 kilokoan, Ibarako neska izango dira eta 500 kilokoan Gaztedi taldea.

Badaiotzekoak saiatuko dira urrezko domina irabazten baina gatxa izango dala dino Lemoako tiralariak. Izan be, taldea asko aldatu da atzenengo urte bietan; bost tiralari barri dagoz eta lau baino ez dira geratzen munduko txapela ekarri eban ekipotik. "Sokatiran urtebete ez da nahikoa teknikea menperatzeko. Hiruzpalau urte behar dira teknikoki ondo ibilteko" dino. Linazak 10 urte daroaz kirol honetan.

Euskal talde eta kategoriak

Badaiotz taldeagaz batera, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko taldeak hartuko dabe parte

Munduko Txapelketa honetan. Honeek dira:

Abadiño (Bizkaia), 560 eta 600 kilokoan, gizonak.

Ibarra (Gipuzkoa), 600 eta 640 kilokoan gizonak. 500 eta 540 kilokoan andrak. 600 kilokoan mistoa A-B.

Badaiotz. Gasteiz (Araba), 500 eta 540 kilokoan andrak.

Murueta (Bizkaia), 600 eta 640 kilokoan gizonak.

tan. Esperientzia izugarria izan zan. Hango neska tiralariak profesionalak dira, bertatik bizi dira" dino harrিতта. Eta Munduko Txapelketea irabazi ostean, presidenteak egin eutsen harrerea aireportuan. Badaiotzek irabazi ebanean, barriz, inor gitxiakin eban horren barri. "Mundiala irabazi ostean, afari bat egin genduan Gasteizen eta inork ez ekian zer zan Badaiotz!".



Ruth Linaza.

Gaztedi. Laukiz (Bizkaia), 500 eta 540 kilokoan andrak eta 600 kilokoan mistoa.

Ñapurak. Ezpeleta (Lapuri), 560, 600 eta 640 kilokoan gizonak eta 600 kilokoan mistoa A-B.

Badaiotz ezagunagoa Taiwanen Gasteizen baino

Sokatireak ez daukala ezelango babesik gurean salatuten dau Linazak. "2012ko urrietan, Taipein egon ginan pelikula bat graba-

Baina sokatireak orokorrean errekonozimendu gitxi badauka Euskal Herrian, ondino gitxiago "neska izanda". "Federazioak gizonai emoten deutse lehen-tasuna" eta hedabideak be joko bera egiten dabela dino Badaiotzekoak. Adibide moduan, ETBK emondako 4x4ko sokatira finala aitatzen dau. "Ordu beteko saioa izan zan. Gizonai 55 minutu eskeini eutseen, androi 5 minutu besterik ez" kejatzen da.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



SOKATIREA

Sokarri txapeldunorde Euskal Herriko Txapelketan

Erredakzioa

Bilbon jokatu zan Euskal Herriko Txapelketan zidarra lortu eban Sokarri taldeak 600 kilokoan eta Galder Gobantes Zeberioko tirariak ekarri eban dominea gurea. Txapela Abadiñok eroan eban, eta Arrigorriagako Sokarri taldeagaz batera, Ezpeletako Ñapurra-ek osotu eban podiuma.

Faboritua Abadino zan eta pronostikoak beteta txapela lortu eban. Dana dala, Sokarrik eta Ñapurra maila handia erakutsi eban eta bardintasun handia egon zan talde bien artean. Hasi-keran bardinduta geratu baziran be, bardintasuna apurtu eta Sokarrik lortu eban zidarra.

Hirugarren 560 kilotan

Hilaren 15ean, barriz, hirugarren egin eban Sokarrik Ezpeletan 560 kiloko kategorian.

FUTBOLA

Neskak nagusi

Ainhoa Duñabeitia

Zezeilako bigarren domekan, hilaren 16an gizonen lehen taldeak eta andrazkoen bakarrik jokatu eban, gizonen bigarren taldeak atsedena euki eban eta.

Gizonen jagokienez, Ugera- ga izan eban aurkari. Baina partidu bertan behera geratu behar izan zan.

Andrazkoak barriz, etxean joku- tu eban domeka arrastian. Emoi- tza ona lortu eban arratiarrak hiru eta bat irabazi eutsen eta Elgoibar taldeari.

PELOTEA

Areatzako umetxoak gogotsu

Oraingoan Areatzako Esku Pelota Alkartaren osasuna aztertu dau BEGITUK. Horretarako alkarteko presidentea dan Jon Petralandagaz, Amagoia Olibares palako arduradunagaz, eta bi modalidadeotan entrenadorea dan Mikel Beldarrainegaz egon da.



Mikel Beldarrain eta Jon Petralanda pelotariakaz.

Irati Urien

Txikitxoenetatik hasita infantiletara hamazortzi mutiko dabiz esku pelotan Areatzan. Hasi barriak diran txikiak kenduta, beste danak konpetiduten dabe. Jon Petralandaren esanetan, bost urtetik gora hasten dira mutilak esku pelotan jokatzen, eta normalean hamabi urteagaz itxi egiten dabe. Arrazoa, oster be, futbola ei da. "Hemen beti egon da zaletasun handiagoa futbolerako esku pelotarako baino, futbola da protagonista", dino Petralandak. Eurekatz txikitatik pelotan ibili ostean penea emoten deusala aitortu dau eta berari be etxean semeagaz pasau jakola dino presidenteak. Areatzako pelota eskolako entrenametuak martitzen eta barikuetan izaten dira. Arrastiko 18:00etan hasi eta 20:30ak artean; gitxi gorabehera baktzak

bere ordutegia dauka, edadearen arabera. Mikel Beldarrain arteaz- tarra da entrenadorea, urrietan hasi zan Areatzako umeai esku pelotan jokatzen erakusten. Itxi egiten dabela eta nagusitxoagoak asko ez badagoz be, egoera ondo ikusten dauala kontau dau Beldarrainek, "ume txikiak kanti- tadea handia da, eta txikiak segi- duten daben artean aurrera joan- go da". Honek be futbola ikusten dau esku pelotea ixtearen arrazoi. "Hemen pelotea eta baloia emon ezkeru ehuneko 90ak baloia har- tuko dau pelotea baino arinago", azalduten dau Arteakoak. Arratia- Nerbio txapelketan hartuten dabe parte mutikoak, eta kon- petizino egunak zapatuak izaten dira normalean. Amagoia Olibares barrez eta konbenziduta agertu da etorkizunari begira; adierazo dau- nez, "txikitxo batzuk polito jabilkuz, batek edo bestek emongo deusku



Amagoia Olibares palariakaz.

pozen bat".

Modalidade barria martxan, palea

Palea martxan ipinteko ilusinoa beti euki dauala aitortu dau Jon Petralandak, eta esan leike gogo hori kunplidu jakola. Aurtengo ikasturtean hasi dira Areatzako neskak paleagaz. Baegozan neska batzuk esku pelotan baina eda- dean gora joan ahala itxi egiten eban. Amagoia Olibaresen esane- tan, "bai eskuen arazoa, bai indar arazoa, azkenean mutilakaz kon- petidutea gero eta gatxagoa zan eurentzat". Neskatoak ezer egin barik itxi beharrean, urtenbide mo- duan palea ipintea pentsau eban alkartekoak. Ebatziagaz sano pozik dagozala adierazo dau Olibare- sek. Pala eskolea sortuteko as- moagaz hasi ziranean dozena bat neska apuntauoko zirala pentsetan eban, eta hamazazpi dira lehe-

nengo urte honetan animau di- ranak. Momentu honetan bi dira konpetiduten dabizen bikoteak, mini-tenis modalidadean. Ardu- radunak dinoanez, martian beste hiru edo lau bikote sartutea espe- ro dabe txapelketetan lehiatuteko. Neska gazterik ez dago taldean. "Printzipioz demandarik ez jaku etorri, baina eskaria atera ezkeru izan leike baten bat etortea -dino Amagoia Olibaresek- momentuz palea barria da, ia aurrera ateraten dogun eta ikusten dogun aurrera doala, Zeanurin gertatu dan mo- duan". Pala entrenametuak be martitzen eta barikuetan izaten dira, baina 16:30etik 18:00eta- ra. Palan be Mikel Beldarrainek entrenetan ditu umeak. Entrena- doreak dinoanez neskatoak pozik joaten dira frontoira, "ez dakit nobedadea dalako edo baina go- goz etorten dira, eta inportante- na horixe da".

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorne Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO PELOTARI

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

TXOTXONGILOAK

Txotxongilo erraldoi bi gehiago egingo dabez Areatzan

Areatzako Udalak, Maurizia, Leon eta Fasio marioneta erraldoiak egiteko tailerlean, igaz parte hartu eban jenteagaz balorazioa egin ondoren, personaje barriak sortzeko proposamena egin dau.

Erredakzioa

Oraingoan Arratiako neska eta mutil jantzari bikote bat irudikatzen daben txotxongiloak izango dira. Aurreko tailerlean parte hartu ebanak zuzenduko dabe tailer hau eta bertan gura daben guztiak hartu ahal dabe parte. "Baldintza bakarra, gogoia eta idea apur bat izatea da" dinoe udaletik.

Txotxongilo bi honek egiteko tailerra, hile bakotzeko azken zapatuan izango da goizeko 10:00etatik arrastiko 20:00ak arte, Areatzako Gazte Lekuko lokaletan. Lehenengo saioa zezeilaren 22an izango da eta atzema bagilaren 28an.

Manipulazio tailerra martxan

Hiru musikarien marionetak manejetan ikasteko manipulazio tailer bat ipini da martxan Areatzan. "Kontuan izan behar da, txotxongilo erraldoi honek mobiduteko teknika berezi bat dagoala. Bizitasun handia daukie, besoak, eskuak, burua, gorputza... dana mobiduten ikasi behar da" dino Sara Gutierrez Areatzako kultura zinegotziak.

Bederatzi lagun dabiz ikastaro hau egiten, gero marioneta erraldoiak Euskal Herriko hainbat he-



Igaz aurkeztu ziran Leon, Maurizia eta Fasioren txotxongiloak Areatzan.

ri, jai eta ekitalditatik erakusteko. Manejetan dabizenak lehenengo entsegua martiaren 4an egingo dabe, 16:30ean, frontoian edo parkean eguraldiaren arabera.

Auzolanean

2013ko zemendian 30 lagun ingururen eskuetatik sortu ziran, Maurizia, Leon eta Fasioren

marioneta erraldoiak. Tailerra auzolanean egin zan Frantziako *Grandes Personnes* txotxongiloginen zuzendaritzapean. Orea Tx, Lekeitioko Kale Antzerki Nazinoarteko Jaialdia eta Kukubiltok sustatu eben "Gure musikari handiak" proiektua eta bertan Areatza, Artea eta Igorreko Udalak hartu eben parte.

BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan izena emoteko epea zabalik dago

Erredakzioa

Udabarian hasiko dira Bizkaiko 8 eskualdeetako txapelketak eta bertan parte hartzeko izena emoteko epea zabalik dago martiaren 5era arte. Horretarako 94 681 27 11 telefonora deitu edo bizkaia@bertsozale.com helbidera idatzi behar da. Bizkaiko Txapelketarako zuzeneko txartela daukienak maiatzean eukiko dabe izena emoteko aukerea.

Arratia, Busturialdea, Duran-

galdea, Enkarterri-Ezkerraldea, Hego-Urbe, Lea-Artibai, Uribe Butroe eta Uribe Kosta dira lehian ibiliko diran eskualdeak. Udagoienean, bost kanporaketa, hiru finalurreko eta finala jokatu dira.

Udagoieneko kanporaketetan, eskualdeetako txapelkunak eta puntuazioaren arabera sailkatzen diranak parte hartuko dabe. Lehendik Bizkaiko finalean egon diranak be bai; honek zuzenean daukie Bizkaiko Txapelketarako txartela eta.

BERTSOLARITZEA

Bertso-afaria Artean

Erredakzioa

Arteko Preso Politikoen Aldeko taldeak bertso-afaria antolatu dau zezeilaren 28rako. Ekitaldia Arteko ludoetean izango da eta bertan Ekaitz Larrazabal "Katxo" eta Fredi Paia bertsolariak egongo dira bertsoak botaten. Aratusteetan sartuta egonda, jentea mozorrotuta joan daitela gura dabe antolatzaileak.

Bertso-afari honen bigarren edizioa izango da hau. Igazkoan, 67 lagun batu ziran. Afaltzera joan aurretik, 20:30ean poteoa egingo dabe herritik. Txartelak Arteko Herriko Bentan eta Igorreko Herriko Tabernan dagoz salgai hilaren 26ra arte.

Gaiak ipinten Irati Astondoa bertsolari zeanuriztara ibiliko da.



ARATUSTEAK

Kalejirak eta mozorro desfileak Aratusteetan

Erredakzioa

Bizkaiko beste lekuetan legez, Arratiako herrietan modu desbar-dinetan bizi dira jai honek. Herri batzuetan, antxinako ohitura batzuk gordetzen dira, batez be, Aratusteak ziklo moduan hartuta, Aratuste aurreko jaiak. Arratian, bizi-bizirik diraue Aratuste domekearen aurreko txitxi-burruntziak. Kuadrilak, mendi taldeak, eskola-umeak eta gurasoak auzune inguruko mendi edo zelai baten txorizoa erreko dabe lagunartean jateko. Leku batzuetan, basora urten beharrean, eskolan egiten

dabe txitxi-burruntzia, Lemoan, barbarako. Han hilaren 27an, Eguen Zurian, goizeko 10:00etan txitxi-burruntzia egingo dabe guraso eta umeentzako eta hurrengo egunean eskola gehienak egingo ditue mozorro desfileak eta eskolako festak.

Aratusteak, zentzu zabalean ziklo bat osotuten dabela dinoe Labayrukoak *Aratusteak Bizkaian* liburuan, baina zentzurik estue-nean hartuta, "inauteriak hiru egun baino ez dira: domekea, astelehena eta martizena". Arratian, Bedian martizenean egingo da jairik handiena; beste herrie-

tan, barriz, bariku eta zapatuan.

Mozorro festak

"Gizonezkoak andra jantzita, اندرازkoak gizon jantzita... eta edo-zelan be soineko barregarriakaz kalera urtetea da Aratusteetako ezaugarri agirienerikoa". Ba Mozorroa jantzita edo soineko barregarriakaz kalera urteteko aukerarik ez da faltauko Arratian. Hilaren 28an, Areatzako Gazte-terakoak antolatuta 19:00etan hasi eta pintxo poteagaz batera mozorro lehiaketa egongo da herriko tabernetatik, gero 22:30ean, mozorro lehiaketako emoitza eta

irabazleen sari banaketea izango da Laminetxe Gaztetxean eta amaituteko 23:00etan 3gabe2 taldeagaz berbenea Gaztetxean.

Diman, zapatuan izango da jaiak. Kalejireak egingo dabe arrastian eta iluntzean, mozorro erakusketea eta sari banaketea egongo dira. Igorren kalejireak goizean izango da, baina goiz eta arrastiz egongo dira igorretarrak mozorroak jantzita. Eguerdian eskolako aterpean bazkaria egongo da eta arrastian taloak eta jantzaldia Jokaldi taldeagaz. Arrastian zehar ume eta helduen mozorro lehiaketea egongo da aterpean

bertan. Igorreko hainbat alkartek antolatu dabe jaiak.

Lemoan be, domekan izango dabe umeak kiroldegian Inauteri Festa, arrastiko 17:00etatik, 20:00etara. Kuadrilak be ibiliko dira mozorrotuta tabernaz taberna eta eguna amaituteko, Karbie Gaztetxean erromeria egingo dabe.

Bedian, barriz, martizenean ospatuko dabez bete-betean Aratusteak. Arrastiko 17:30ean mozorro desfilea egingo da herri mailan, eta gero musikea eta txokolatea egongo dira jaiak amaituteko.

ERAKUSKETEAK

Arratiako artea Igorreko Erakusketa Gelan

Erredakzioa

Gitxitan batzean dira Arratiako hainbeste artistaren lanak erakusketa baten. Arteko Mari Tere Bilbao, Areatzako Maite Artabe, Dimako Tere Uribe-Etxebarria, Igorreko Marisol Calzada eta beste batzuk, Arratian bizi ez arren Arratian garatu dabena euren artea, erakusten dabez pintura lanak martiaren 8ra arte Igorreko Erakusketa Gelan.

Hirugarren urtea da Ines Medinaren mintegietan parte hartukoak Igorren talde erakusketea egiten dabena. Erakusketa hau "ikaskuntza honen historiaren eta emoitza artistikoen laburpena" dala dino Ines Medina koordinatzaileak.

Izan be, bost urte pasau dira lehenengo mintegi haretatik eta urteotan artista bakoitxak bere mundu propioa garatu dau.

Taldea Arratian jaiotzen bazen be, partaideak ez dabez erakusketak Arratian bakarrik egin eta talde erakusketez gainera, bakarkakoak be egin ditue. Erakusketak lortzeako Igorreko Biziartearen alkatetza sortu eben eta Areatzako bainuetxean, berbarako, hilean-hilean alkatetako partaide batek bere lana erakusten dau. Igorren, Areatzan, Zornotzan, Bilbon, Leonen, Granadan eta, Medinaren ustetan, laster nazinoarte mailan egingo ditue erakusketak Arratiako artista honeek. Bitartean, taldearen sorlekuan dagoz ikusgai.



LIBURUA

Bizkaiko Aratusteen gaineko ikerketea argitaratu dau Labayruk



Akaitze Kamiruaga, Igone Etxebarria, Ana de Castro eta Adolfo Arejita.

Erredakzioa

Igone Etxebarria bediazarra, Adolfo Arejita eta Akaitze Kamiruaga dira monografia honen egileak. *Aratusteen Bizkaian* izenpeko liburu eta DVDak Bizkaiko Aratusteen ezaugarriak eta herri "enblematikoenetan" egiten diran ospakizunak jasoten ditu. Aurtengo Aratusteen baina aste bi lehenago aurkeztu eben lan hau Igone Etxebarria eta Adolfo Arejita egileak eta Ana de Castro Foru Aldundiko Euskera Zuzendariak.

Liburuan, gaiaren inguruko azalpenak emoten dira eta DVDan, ordu erdiko dokumental baten

lekukotasunak eta herrietako tradizioen irudiak jasoten dira. Aratusteen, inauteriak, kamabalak, berba asko dagoz jai honek izentatzeko, baina jai bat baino gehiago ziklo bat dala esan eben egileak.

Herriz herri egindako ikerketa lan bat da. "Bete-betea, Adolfo, Akaitze eta hirurok ibili gara lan hau egiten. Baina lana aspalditik dator" azaldu eban Igone Etxebarriak. Herri ondarea jasoten dabil Labayruk alkatetza bidez eta horretarako grabazioetan, barri-emoileak askotan aitatzen zituenean Aratusteen inguruko gauzak, horreek be hartu ditue lan honetarako.

Aratusteen zikloan beste jaiegun asko sartzean dira: aurretik San Anton, Kandelario, San Blas, Santa Ageda; eta aratusteen barruan Basarostea, Eguen Zuri eta kamabal-egunak. Horreen barri be emoten da liburuan.

Etxebarriak liburu bi denpora gitxian

Bediako ondarea jasoten dauan lana, *Bediako ohiturak* izenekoa kaleratu eban Labayruk Euskerearen Egunaren inguruan. Egileak Igone Etxebarria, Ainhoa Etxazarra eta Akaitze Kamiruaga dira, lehenengo biak, bediazarrak.

DUNBA

Nagusiok zergaitik ez dozue euskeraz egiten?

Itsaso Artetxe Aldape eta Ane Lekue Goti. Arratia Institutua.

Arratiak ospe ona izan dau beti, euskera asko egiten dala eta. Gure aitita eta amama askok ez dakie ondo erderaz eta bizitza guztian euskeraz egin dabe, etxean ikasi dabena legez. Baina barra baten ondoan jartean giroa guztiz aldatzen da. Gehien bat 45-50 urte inguruan dagozanak erderara jotzen dabe, nahiz eta euskaldun peto-petoak izan eta danak euskeraz jakin. Zergaitik? Beharbada eurak be ez dakie.

Asti denporan egiten diran ekin-tza gehienak, zinea, telebista, kirola... kanpo influentzia erdaldunak ditue, hizkuntza hori inposata dagoalako eta erabilera behartzen zaitue. Horregaitik, arlo honetan oso errez hasten gara erdera erabilten, ia konturatu barik, eta gizakia ohituradun izakia izanda, behin hasita, ohitu egiten gara egoera horretan euskerea ez erabilten. Danok doguz erdere

erabilten doguzan momentuak, baina adin horretan, nagusiengan, areagotu egiten da hizkuntza horren erabilera. Gainera, urteetan egin doguna gero eta gehiago kostetan

Helduen euskereagazko konpromiso maila sano bajatu da urteokaz

Ander Villaverde eta Jonh Ziarrusta. Arratia Institutua

Euskerearen erabilera gitxituten dabil urterik-urte baina oin ez bakarrik gazteengan, gero eta persona adindun gehiago ikusten doguz erderaz berbaz gure herrietan. Halanda be, hau ez da egungo kontua, nagusiak aspalditik dabiz erderaz mintzatuten etxetik kanpo. Oin arte euskerearen erabilera nahikoa oparoa izan da eta

jaku aldatzea, eta hartutako hizkuntza ohiturak oraindino gehiago.

Momentuz arazoa adin horretan dago. Baina adin horretakoak seme-alaba gazteak ditue, eta haren eredu dira gurasoak. Nagusiak erderaz egiten dabela ikustean horrela jokatu dabe, nagusiago bihurtuko dihalakoan. Eta hori belaunaldiz belaunaldi igaroko da, euskereak kaleko bizitza galdu arte.

Gure aitita eta amamak gogor burukatu dabe euskerearen alde,

honek bizirik irauteko. Eurak erderaz ikasi behar izan eben, euskera debeatuta egoalako, eta era guztietako irainak jaso ebezan hori zala eta. Tabernan erderaz egiten dabena, aukerea izan dabe euskeraz ikasteko, biziteko, jolasteko... inork zigortu edo iraindu barik, orduan, zergaitik jotzen dabe erderara? Zergaitik ez dabe gure arbasoak hasitako burruka jarraitzen? Gure eskuetan dago burruka horretan sartzea edo indartsuenaren aldera jotea.

eta askotan, euskeraz dakien bi pertsonak erderaz egiten amaituten dabe.

Helduen euskerearen erabilera be beste faktore inportante batek eragiten dau. Bueno, bai helduqi eta bai gizarte osoari, gazteenetatik hasita zaharrentaraino. Horren adibide argia telebisinoa da, euskeraz pare bat kanal daukaguz eta erderaz ezin doguz kontau be egin. Atzenean ohitu egiten gara erdere entzuten eta horrek influentziauko deusku berba egiterako orduan, erderaz egitea erreztasunez gertatuko jaku eta ohitura bihurtuko da.

Horezaz aparte, lanpostuetan sartutako erderearen erdi inposaketea be nahikoa garrantzitsua da nagusien eguneroko bizitzan igarteko. Lanpostu

bat daukagunean normal egiten jaku erderaz mintzatutea, hori da oin arte ikusi doguna eta. Jente euskaldunen aurrean egon ezker be lanpostu publikoetan beti entzungo dogu aurretik aitatu dogun "lehenengo berbea" erderaz, erdalduntzat emoten doguz danak eta. Erderearen inertzia hori behin hartu ezker sano gatxa da barri euskerara bueltetea erderazko ohitura hartu dozunean.

Holan segidu ezker luze barik euskereari akabua emongo jaku eta desagertuten danean berandu izango da aitzakiak topetako edo damututeko. Euskerearen erabilera helduengan sano gitxitu da urteokaz eta barriro sustatuteko ahalegina egin beharko dogu danon artean.



AGENDEA

ZEZEILAK 18

AREATZA

Hesperia Hotelean "Dantzazaleak" Aikoren dantzaldi ibiltaria erakusketea Iñaki Andresen argazkiakaz.

BEDIA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Udaletxean.

ZEZEILAK 20

AREATZA

18:00etatik 19:30era, AKKBK antolatuta, bookcrossing egiteko liburu biketea. Udaletxeko 3. pisuko gelan.

19:00etan Gorka Espiauren *Hablan los ojos* dokumentala Udal Aretoan Bizikidetzaren Planak antolatuta.

21:00etan, Frontenis Txapelketa.

LEMOA

18:00etan, Lemoako Haur eta Gazteen XIII. Ipuin lehiaketaren sari banaketa. Ludotekan.

ZEZEILAK 21

AREATZA

19:15ean, AKKBK antolatuta, kareta tailerra Pili Aranbururen eskutik.

21:00etan, The Wijets (Irish folk music) The Quiet Corner tabeman.

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, udalak eraturako ikastaroetan izena emateko epea zarratuten da. Liburutegian. Ikastaroak: Mintza praktika ingelesez, Haur zaintzaile eta umeentzako jolas tailerra, Lehenengo laguntzak, Rollers patinajea eta Pelbisari eustea.

LEMOA

20:00etan, *Baso Ahaztuak* dokumentalaren emonaldia Karabie Gaztebtxean.

ZEZEILAK 22

AREATZA

10:00etatik 20:00etara, Txobxongilo erraldoiak egiteko tailerra, Gazte Lekuko lokaletan.

16:00etan, AKKBK antolatuta, 16 urteko tailerra 16 urteko behar koentzat eta 17:30ean, makilaje ikastaroa 16 urteko gorakoentzat Rosana Pedrosagaz. Udaletxeko espilu gelan.

IGORRE

22:00etan, zinea *Ismael* Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 23

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, egun erdiko urtekerea umeentzat. Kanporamartxo Zaratamon.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Caminando entre dinosaurios*. 19:30ean, zinea *Ismael* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

18:30ean, zinea *Melancolia* udaletxeko 2. solairuan.

ZEZEILAK 24

AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Frontenis Txapelketa. AKKBK antolatuta.

DIMA

Odoloste tailerren izena emateko atzen eguna. 94 631 57 25 edo kultura.dima@bizkaia.org.

ZEZEILAK 25

BEDIA

17:00etan, hileko tailerra: apaingarriak (pulserak, arakadak, giltzeroak). Liburutegian.

ZEZEILAK 26

BEDIA

17:00etan, hileko tailerra: apaingarriak (pulserak, arakadak, giltzeroak). Liburutegian.

DIMA

19:00etan, odoloste tailerra Landaburu biokoa.

ZEZEILAK 27

AREATZA

21:00etan, Frontenis Txapelketa. AKKBK antolatuta.

LEMOA

10:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, txiki-buruntzia eskolan guraso eta ikasleentzat.

ZEZEILAK 28

AREATZA

Parkeak antolatuta Talo Eguna.

19:00etan pintxo poteagaz batera Mozorro Lehiaketa herriko tabernetatik. 22:30ean Mozorro Lehiaketako emoitza eta irabazleen sari banaketa Laminebxe Gaztebtxean. 23:00etan 3gabe2 taldeagaz berbenea Laminebxe Gaztebtxean.



Asier ETA biok filma Igorren

Amaia Merino eta Aitor Merinok zuzendutako *Asier ETA biok* filma euskeraz ikusteko aukerea egongo da Igorreko Kultur Etxean martiaren 2an 19:30ean. Aitor eta Asierren arteko adiskidetasuna kontetan dau dokumentalak. 80ko hamarkadan ikaskideak izan eta gero, Aitor Madrilerera joango da aktore izateko. Asier, barriz, Iruñean geratuko da. Urteak pasa eta 2002an Asier ezkutatu egiten da, ETako kidea dalakoan polizia daukalako atzean. Zortzi urte emon zituan kartzelan Asierrek. Filma Aitorren Madrilgo lagunai ETako kide batez eukan adiskidetasuna azaltzeko egin zan, "Madrilgo lagunaren eta Asierren arteko ulertze-bideak" sortzeako hain zuzen.

ARTEA

21:30ean, Presoen aldeko bertso-afaria ludotekan. Bertsolariak Ekaitz Larrazabal "Katxo" eta Fredi Paia. Mozorrotuta joan behar da.

IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

LEMOA

11:30ean, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, mozorroen festa eta gurasoak prestatutako txokolata.

19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herriak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

MARTIAK 1

DIMA

17:30ean, kalejireia abiatuko da. 18:00etan, umeentzako jantzialdia Txarko Diskotikiagaz. 19:30ean, mozorroen erakusketea eta sari banaketa. 20:00etan, afari-meriendea.

IGORRE

12:00etan, mozorro kalejireia heritik zehar. 15:00etan bazkaria eskoletako aterpean. 17:00etatik aurrera, Jokaldi taldeagaz erromeria, ume eta helduen mozorro lehiaketa eskoletako aterpean.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, haurrentzako Inauteri Festa kiroldegian. 17:00etan, herriko kuadrilak antolatuta, poteoa jubilatuen tabernetatik hasita. 18:00etatik 20:00etara, Zaparrada Batukada Taldeagaz poteoa. 20:30ean, pikoteoa Txoane Tabeman. 21:15ean, "Harro bizi euskeraz" bideo kliparen aurkezpena Elizondo Kultur Gunean. 21:30ean, Harrikerarrak antolatuta, Eromen erromeria Gaztebtxean.

MARTIAK 2

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, Alto Campoo-ra eski urtekerea umeentzako.

IGORRE

17:00etan, *Lluvia de Albondigas* umeentzako zinea. 19:30ean, zinea *Asier ETA biok* Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. ITVa urri lehenengora arte pasauta. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

DANERIK

AREATZAN ETXEA ALOKAIKUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau

solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingeleseko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ismael* filmarako.

Garikoitz Etxebarria (Igorre)
Aitziber Gondra (Bilbo)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Asier ETA biok* filmarako.

Inma Valiente (Zeanuri)
Jabi Lamadrid (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Koitadu. 2.- Loki. Bat erromatar.
3.- Zapata-azpi. Ezetza. 4.- Iridioa.
Ibar, harana. 5.- Berba alkarketan, ate.
Zenbaki bat. 6.- Arau. Galioa. 7.- Izan
aditz jokoan. Nabar. 8.- Erdiko bokala.
Aztertu. 9.- Laparda.

GOITIK BEHERA

1.- Zentzagarri. 2.- Lehortea. Bokala.
3.- Galdetzaila. Zidarra. Mililitroaren
sinboloa. 4.- Bigun. Guzurra ez
dana. 5.- Greziar alfabetoaren letrea.
Oinarrizko odol taldeetako bat.
Memorian, informatikan.
6.- Oxigenoa. Mozte. 7.- Esentzia.



Topau zazpi kotxe marka izen.

S	A	N	T	A	N	D	I	N	A
O	R	K	A	O	U	S	D	O	L
R	E	N	A	O	P	E	O	L	U
U	N	I	I	G	R	E	M	A	K
S	A	D	A	M	A	R	L	O	E
E	U	O	F	O	R	D	E	M	Z
A	R	T	A	C	H	A	K	A	I
C	O	C	H	A	S	E	A	T	A
T	X	I	M	A	L	U	Z	O	T
O	Y	T	O	Y	O	P	A	E	Z
M	A	R	O	K	O	R	A	G	O
E	Z	O	R	Y	A	K	L	U	X
B	R	E	K	A	O	M	I	E	R
O	Z	N	E	T	A	T	I	P	A
L	A	K	E	M	I	L	A	T	W

AKI MI KO

Iman Olatu



begitu

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Pinturas Arria
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 2.
48110 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 673 64 25

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igore
94 631 52 26

umean moda
SEM
e-16
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Telefono: 94 631 92 94 • semoda@hotmail.com

LEKU ALDAKETA
martiaren 3tik aurrera
Agirre Lehendakaria 31n
egongo gara

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUETAN
Beltza Arria, 3 • Telefono: 94 673 71 61 • Fax: 94 673 64 61 • 48140 IGORRE

axular
kultur elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain egotea
Gorbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: unozaku@eskola.net

IANIRE ARANA

"Edadeko jenteak erabilten dau batez be, taxi zerbitzua"

Zeberio, mila eta ehun biztanle inguruko populazioa dauka eta honek 70 auzunetan bizi dira. Herria oso sakabanatuta dago eta jente gehienak kotxea erabilten dau inguruko herrietara edo auzuneetatik erdigunera joateko. Baina edadeko jente asko dago Zeberion, biztanleen ia % 15a (% 14,7 Eustat-en arabera) 75 urtetik gorakoa da. Batez be euren mobiduteko aukerak bultzatzeko, autobus prezioetan taxi ipini eban Udalak orain bost bat urte. Arratian, Diman, Igorren eta Zeanurin be badago zerbitzu hau.

Ianire Arana, Otzerinmendi (Zeanuri) auzuneko Ortuzar baserrikoa, da Zeberion zerbitzu hau emoten dauan taxistea. Beragaz berba egiten gengoan bitartean, Etxazotik Zubialdera ekarri dau bezero bat. Erosketa batzuk egin behar zituan andreak.

Erredakzinoa**Deskribidu mesedez Zeberion egiten dozun zerbitzua.**

Martitzenetan eta eguenetan, goizetan egoten naz, 09:30etik 13:30ak arte. Eta eguaztenetan arrastiz, 18:00etatik 21:00etara. Jenteak medikuarengana, edo bankura, edo farmaziara edo erosketak egiteko erabilten dau. Ugaora joateko be erabili daiteke, pelukeriara edo. Eta beste batzuk Igorrera joaten dira. Zerbitzua herri barruan, auzune guztien artean, Ugaora, Artea, edo Igorrera joateko da.

Gehinbat edadeko jenteak erabilten dau.

Zerbitzu hau hartu zenduan, Zeberioko auzune guztiak ezagutzen zenduzan?

Ez, ez. Hasi nintzanean igazko zementiaren 1ean, egun bitan eto-

ri nintzan lehen zerbitzua eukan taxisteagaz. Kasualidadez egun bi horreetan ez zan jente askorik ibili. Orduan, telefonoaren gps-an auzuneetako izen guztiak sartu nebazan.

Zein da zure balorazinoa zerbitzu hau dala eta? Beharrezkoa da?

Bai. Holango herri baten behar-beharrezkoa, batez be jente nagusiarentzat. Jente nagusi piloa dago hemen, bakarrik bizi dana. Orainsu egon dan andreak 83 urte daukaz, baina badagoz 85 eta 88 urtekoak. Euren seme-alabak Basaurin edo Bilbon edo kanpoan bizi dira eta zeozer gura dabenean, edo medikuarenera etorri, edo beste zeozer, derrigor behar dabe taxi zerbitzua.

Erabiltzaileak pagau behar dauan prezioa autobus zerbitzuarena da, ezta?

Udalak ipinitako prezioa ordaintzen dabe erabiltzaileak. Herri barruan bada, euro bat da bajatutea eta beste bat igotea. Joan-etorria euro bi, beraz. Ugaora euro eta erdi, joan-etorria 3 euro eta Artea bardin. Igorrera joan-etorria 4 euro.

Honetaz aparte, zer egiten dozu? Taxiak non dauka geroak?

Igorren. Han egoten naz. Nebeari be lagunduten deusat...

Goizetan, Galdakaoko Andra Mari Insitutura eroaten dodaz gazte batzuk. LHko moduloren bat edo egiten dabe. 16-20 urteko gazteak dira, arazoren bat edo daukienak, Down sindromea edo holango zeozer.

Honek Eusko Jaurlaritzako diru laguntza bat daukie honetarako. Galdakoaon behar egiten ikasten dabe, gero Lantegi Batuetan edo behar egiteko. Artea bizi dan neska bat eroaten dot, beste neska bi Igorrekoak eta San Kristobaleko mutil bat. Goizetan eroaten dodaz eta gero hiruretan barriro ekarri.

Hemen Zeberion ia lagun beste kotxe dagoz.

Auzuneetan kotxe asko dagoz,

"Jenteren zain

nagoanean, puntua

egiten dot. Erlajetan

nau"

baina jente gazteak erabilten dauz. Eta horreek lanean dabiz eta goizean goiz alde egiten dabe. Baina edadekoak hemen geratzen dira eta zerbitzu hau behar dabe nonora joan gura dabenean. Zeberion edade handiko jentea bizi da. Larogeta bost edo larogeta zortzi urteko asko dagoz. Larogetik gorako pilo bat.

Jentearen zain zagozen bitartean, zer egiten dozu?

Puntua egiten dot. Eguazten arrastietan, etorten nazanean ez dago ezer. Bueno, gaur podologo dago. Eta hemen egon behar nazanez 18:00etatik 21:00etara, be zer egingo dozu? Beti irakurri? Niri puntua egitea gustetan jatanez, puntua egiten dot: umeentzako jertseak edo dana dalakoa. Askok erlajetan naz puntua egiten.

Dana dala ez dago denpora libre askorik. Eguazten arrastietan baino ez. Egun horretan ipini zan zerbitzua gimnasia dagoalako, eta podologo. Baina podologo oraindino zerbitzu barria da eta jente askok ez dauka horren barri. Martitzen eta eguenetan goizetan, barriz, ez dot astirik izaten ezta kafe bat hartzeako be.

Zer da gaxena behar honetan?

Jentea ez dago ohituta alde aurretik deitzera. Eta danak gura dabe momentuan, atoan. Baina Zeberio hain zabala danez baten batek esaten badeutsu "etorri Saldarina" eta beste batek, minutu bat beranduago, "etorri Isasira", gitxienez ordu erdi pasau behar

da, oso urrun dagoz eta.

Orduan, udalak egin dau idazki bat esanez, ahal dan neurrian deitzeako goizean lehenengo orduan edo bezperan. Ze jenteak badaki hurrengo egunean medikuarenera joan behar dauana. Edo farmaziara edo bankura. Aldez aurretik deitu ezker, gitxiago egon beharko dira zain.

Ahaleginduten naz danak ondo atendiduten baina askotan ezinezkoa da eta derrigor etxon behar dabe. Alde horretatik ez nago gustura ze ez dot gura inork etxeterik. Eguraldi ona dagoanean zeozer, baina eguraldi txarragaz... Baina bueno apurka-apurka joango gara hori konpontzen.

Zenbat taxista dagoz Arratian?

Igorren gagoz bospasei. Diman beste bat eta Lemoan, oker ez banago, beste bat.

Zenbat denpora daroa auzuneen arteko zerbitzu honek?

Uste dot hau bosgarren urtea dala Zeberioaren kasuan. Baina Zeanurin, adibidez, pilo bat urte. Zerbitzu hau Diman, Igorren eta Zeanurin be eskeintzen da.

Eta erabiltzaileen erantzuna antzekoa ala desbardina izan da?

Nik uste dot Zeberion jenteak gehiago erabilten dauala taxi. Zeberio oso herri zabala da eta herrira bajateko edadeko jenteak nahitaez behar dau taxi. Beste herriak ezaugarri desbardinak ditue, eta jentea, nik uste, gazteagoa da eta kotxe pribadua eta autobusa gehiago erabilten dabe.

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com**

